



Diru iturriak

Gure produktua, TMTab, 60€ tan salduko da.

Enpresaren diru sarrerak aktiboaren salmentaren bitartez jasotzen dira. Gure produktuaren prezioa salmenta bolumenaren arabera aldatuko da, hau da, produktua gutxi saltzen bada prezioa jeitsi egingo da, aldiz, salmenta handiak badaude, prezioa ez da aldatuko hasierakoarekin begiratur, hasierako prezioa tabletak izango duen gehieneko prezioa izango delako. Gure iritziz, hauek baitira TMTaben prezioak eraginkortasun gehien izateko aukera duen modua.

Proiektua garatzeko eta gure proiektuari hasiera emateko, 4.000€ko kapitala jarriko dugu. Hau da, 800€ bakoitzak. Egokiena baita diru kantitatea ondo kudeatzea eta era eraginkorrean erabiltzea. Beraz, 4000 euroko kopurua aproposa izango litzateke. Gure bizitzan zehar aurreztutako dirua izango da hori. Kontuan hartu behar dugu gastu handiak izango ditugula: lokal baten alokairua, wifi-a, elektrizitatea, telefonoa, web orria... 4.000€ ko kapitalaz gain beste diru iturri batzuk izango ditugu, inbertitzaile posibleak: basque culinary center, udaletxetik jasotako diru-laguntzak eta beste entitate finantziarioek eskainitako maileguak.

Kontuan hartuta gaur egungo gizartean teknologia oso garrantzitsua dela, eta hobekuntza pilo bat daudela. Baita ere, fitness mundua modan jarri da, Espainiako populazioaren %30a gimnasio edo kiroldegi batera apuntatuta daude eta. Beraz, kirola oso garrantzitsua da gizartearentzat eta bakoitzak bere gorputza zaintzea ere. Horregatik, dieta osasungarriak egiten dituzte eta bizitza osasuntsua daramate. Gure produktuak arrakasta handia izan dezakeela uste dugu.

